

Bilera-akta
HABEko Zuzendaritza Batzordea

Eguna: 2010-12-16, osteguna

Hasiera-ordua: 11:15

Bukaera-ordua: 13:15

Bertaratuak

Blanca Urgell Lázaro and., Kultura sailburua

Lurdes Auzmendi Ayerbe and., Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Ivan Igartua Ugarte jn., HPSko Koordinaziorako zuzendaria

Iñaki Uribe Burgoa jn., HABEko zuzendari nagusia

Juan Isasi jn., HAEE-IVAPEko Euskara zuzendariordea

Miren Dobaran Urrutia and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia

Estibaliz Alkorta Barragan and., Gipuzkoako Foru A.ko Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia

Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindia

Esther Isasa Gaskue and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria

Josu Esnaola Aranguren jn., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Arantxa Ezeiza Trojaola and, Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

Patxi Martinez de Marigorta Guzman jn., HPSko Herri Administrazioetan Euskara Normalizatzeko zuzendaria

Agustin Otsoa Eribeko Landa jn., Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria.

Aztergaiak:

1. 2009ko otsailaren 27ko bilera-akta onartzea
2. Zuzendaritza Batzordeko kide berrien aurkezpena
3. Zuzendariaren izendapena
4. 2009ko eta 2010eko jardueren memoria
5. 2011ko aurrekontua
6. 2011rako lan-ildoak
7. Norberak lekarkeena

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2009ko otsailaren 27ko bilera-akta onartzea

Blanca Urgell Kultura sailburuak hasiera eman dio bilerari, eta banatutako dokumentazioan zegoen aurreko akta irakurri du Lurdes Auzmendi sailburuordearen laguntzarekin. Andres Iñigok pare bat zuzenketa egin dizkio testuari. Batetik, 6. puntuan –Euskara-egiaztagirien baliokidetzaren dekretuaz ari dena–, “Nafarroak Hizkuntza Eskola Ofizialeko agiriak baliatuko dira...” aipatzen duela, baina eskola ofizial bat baino gehiago direnez “eskola ofizialetako” beharko lukeela; bestetik, adierazi du bera ez zela aurreko bilera hartan izan.

Zuzenketa horiek egin ostean, onartuta gelditu da akta.

2. Zuzendaritza Batzordeko kide berrien aurkezpena

Batzordean hainbat kide berri daudelarik, banan-banan aurkeztu dira batzordeko guztiak, zahar eta berriak. Batzordeko kide berriak dira: Blanca Urgell, Lurdes Auzmendi, Ivan Igartua, Patxi Martinez de Marigorta, Iñaki Uribe, Encar Echazarra, Esther Isasa eta Arantxa Ezeiza. Hamahiru kideetik zortzi berriak, beraz.

3. Zuzendariaren izendapena

Urgell andreak gogorarazi du Zuzendaritza Batzordeari dagokiola HABEko zuzendariaren izendapenari onespina ematea, eta barkamena eskatu bio batzordeari hala egin ez delako. Horretarako arrazoiak emanez, adierazi du askotan gertatzen dela erabakiak bat-batean hartu beharra –dimisioak edo beste arrazoiren bat dela medio– eta ez duela betarik ematen legeak dioena betetzeko.

Miren Dobaranek erantzun dio ez duela uste fede txarrez jokatu denik, eta ez duela arazorik ikusten izendapena ontzat hartzeko.

Aho batez onartu da Iñaki Uribe HABEko zuzendari berriaren izendapena. Uribe jaunak bere esker ona adierazi die batzordekideei.

4. 2009ko eta 2010eko jardueren memoria

Iñaki Uribek azaldu duenez, bileran banatutako dokumentazioan dago jasota 2009 eta 2010eko jardueren berri. Bertan, ezkerreko zutabean azaltzen dira zer helburu jarri ziren eta eskuinekoan buruturikoak; hain zuzen ere, alor hauen ingurukoak: helduen euskalduntzerako oinarrizko kurrikuluaren diseinua eta egikaritzea, materialgintza, irakasleen prestakuntza, argitalpenak, funts bibliografikoa zabaldu eta zerbitzuak hedatzea, euskaltegietako jardueraren eraketa eta jarraipena, euskalduntze-alfabetatzeko sektorearen finantzazioa, ikas-irakasprozesuaren jarraipena eta ebaluazioa eta teknologia berriak baliatzea euskararen irakaskuntzan.

Bereziki, 2010eko jarduerari hasi da errepaso ematen Uribe jauna, adieraziz aurrera jarraitzen dutela arlo guztietako helburuak gauzatzeko prozesuak.

Aurreko bileran aipatutako Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordioaren harira, Lurdes Auzmendik aipatu du dezenteko bidea zeukatela Euskarabideakoekin batera eginda –besteak beste, kurrikuluaren eta egiaztagirien baliokidetzaren inguruan–, baina jakin berri dute –ez bide ofizialetik– zeregin horiek guztiak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailera pasatuko direla. Espero izatekoa da orain arte jorratutako bidea ontzat ematea, egindako lana ahal den azkarrena amaitzeko.

HABEko funts bibliografikoaz, Uribe jaunak adierazi du Eusko Jaurlaritzan planteamendu berri bat egin duela gai horretaz, eta aztergai dagoela nola uztartu HABEko liburutegia sare horretan; izan ere liburutegi berezitua baita HABEkoa. Uribek adierazi duenez, oraindik ez du astirik izan liburutegiko arduraduna den Imanol Irizarrekin jarduteko.

Auzmendi sailburuordeak adierazi du oso preziatua dela HABEko liburutegia adituen artean. Kontua da arlo horretan ere etengabe ari direla aldaketak gertatzen, teknologikoak nahiz bestelakoak, eta auziaren gakoa da hor nola kokatu.

Euskaltegien jarduera hizpide hartuta, Auzmendi andreak esan du 2010-2011ko matrikulazioak behera egin duela. Aurrera begira ere pentsa liteke beheranzko joera izango duela, kontuan hartuta Jaurlaritzaren asmo berriak zein diren; alegia, nolabaiteko euskara-maila aitortzea ikasketak euskaraz egin dituztenei. Bistan dago egokitze prozesu bat etorriko dela. Bestalde, pentsatzekoa da beste alor batzuk ere zabal lekizkiokeela euskalduntze-alfabetatze sektoreari, hala nola, egiaztagiriren bat dutenen birziklatzea, eskuratutako egiaztagirien goragoko tituluak ikastea. Testuinguru horren baitan, euskaltegiak hasi dira barneratzen diru-kontuetan murrizketak etorriko direla, Auzmendik aditzera eman duenez. Euskaltegiek bere aldetik ordain gisa eskaerok egin litzakete: euskara-maila egiaztatze urteko bi deialdiei eustea eta titulazioa ezarian-ezarian bere esku jartzeko joatea.

Euskalduntze-alfabetatzeko sektorearen finantzazioaz, Auzmendi andreak aipatu du euskaltegi pribatuekin akordia erdietsi zuela joan den udan; hain zuzen ere, % 2ko beherapena 2010-11 ikasturtean eta % 10eko beherapena 2011-12an. Dena den, espero du % 10 horretara iritsi beharrik ez izatea. Udal-euskaltegiei dagokienez, akordio batera iritsi berri direla HABE eta EUDEL. Akordio horren arabera, udal euskaltegiek jasoko dituzten dirulaguntzak % 1,96 baino ez dira jaitziko; ikasturtearen hasieran % 12,5 jaitziera aurreikusten bazen ere, azkenean aipatutako jaitziera bakarrik izango dute.

Euskara-egiaztagiriak homologatzeko dekretu berriaren gainean, Auzmendi andreak gogorarazi du epai batek emandako ebaspen bat zela-bide, behartuta zeudela egokitzapenak egitera, batik bat hizkuntza-eskola ofizial guztiek emandako egiaztagiriak onartze aldera. Bestalde, kontuan harturik enplegu publikoaren eskaintzak zeudela tartean, eta horietan hainbat herritar kalteturik atera zitezkeela, erlojuaren kontra egin behar izan da dekretu berria.

Eusko Jaurlaritzako sail guztientzako bateratua izango den erregistroa ere aipatu du Auzmendi sailburuordeak. Bukatzear dagoela eta bertan maila guztietakoak eta toki guztietakoak bilduko dituela. Teknikoki egina zegoen jadanik, baina erabilpen zabalagoa ematearren luzatu egin da zerbitzu hori martxan jartzeko eguna, baina 2011ko udaberri edo udarako indarrean egotea espero dute.

Horren harira, IVAPeko Juan Isasik interesgarritzat jo du, baimenik eskatu beharrik izan gabe, Jaurlaritzako beste sail batzuek emandako egiaztagiriak kontsultatzeko modua izatea.

Teknologia berriei buruz, Uribe jaunak azaldu du martxan dela HABEren Ikasbil ataria berritzeko prozesua. Halaber, azterketa-sistema errazteko asmoa dago; oso konplexua izateaz gain, bolumen handia hartzen baitu. Horren harira, azterketa guztiak digitalizatu egingo dira, hainbeste paper gorde eta batera eta bestera erabili beharra saihestuz.

Arantza Ezeizak galdetu du ea azterketak digitalizatze hori datorren deialdian gauzatuko den. Prozedura burokratikoak ahalbidetzen duenean egingo dela adierazi du Uribek.

5. 2011ko aurrekontua

Puntu honetako kontuak azaltzeko, HABEko Kudeaketako zerbitzuburuak egindako balorazioa -banatutako materialean jasotzen dena- irakurtzeari ekin dio Lurdes Auzmendik (datu zehatzagoei erreparatu nahi izatera, bertara jo daiteke). 2011ko aurrekontuak egiteko izandako prospektibak optimistegiak izan ziren, eta hortik bide datoz orain desorekak.

2010/11 ikasturteko deialdia abian jarri ez den arren, urri-abenduko dirulaguntzei dagokienez, ordainketa zuzenean egiteko asmoa dago euskaltegiei; 2011ko urtarril-irailekoa, aldiz, deialdi bidez egingo da. Hori guztia Eusko Jaurlaritza eta EUDELen artean erdietsitako akordioari esker.

Bestetik, esan behar da 2010eko exekuzio-maila 2009koa baino handiagoa izan dela eta, hortaz, soberakina txikiagoa (2009ko soberakina 1.443.142€-koa izan zen; 2010ekoa 700.000 €-koa). 2009an sorturiko desoreka konpondu zen aurreko urteetako diruzaintza-

gerakinak genituelako. Datuen argitan, 2010 eta 2011n zailago egingo zaigu horrelako desorekak konpontzea.

HABEko aurrekontuen arazorik larriena sarrera-aurrekontuetan datza. Kultura Sailaren ohiko transferentzia jaso ondoren, izugarriko defizita daukagu oraingoz (9.720.072 €). Exekuzio-maila txikiena IVAPekiko fakturazioak eduki du, baina sinatu berri den lankidetzak akordioari eskerrak, IVAPekiko defizita 1.500.000 izatetik 500.000 € izatera pasatu da. Beste horrenbeste esan genezake gainerako erakundeekin (Hezkuntza, Justizia, Osakidetzak...) ditugun harremanen baitan. Beraz, oso larri ibiliko gara 2010eko azkeneko ordainketak egiteko.

2011ko urteari dagokionez, gastu-aurrekontuak izan duen murrizketa nabarmenez gain, azpimarratzekoa da sarrera-aurrekontuaren exekuzio-maila oso defizitarioa izango dela. Izan ere, funtzionarioen euskalduntze-prozesuaren jarduera murriztuz doan bitartean, HABEkin prozesu horiek hitzartuta daukaten erakundeek ez dute behar adinako murrizketarik egin aurrekontuetan, eta horrek aurtengo desoreka errepikarazi lezake, inongo diruzaintza-gerakinik izan gabe hori konpontzeko.

Nola bete dira aurrekontu horiek eragindako zuloak? HPSko soberakinak HABEra pasatuz, Lehendakartzatik eta Legebiltzarrean egindako emendakinen bitartez, besteak beste, lortu da defizit hori ia osorik estaltzea. Nolabait, adabakiz adabaki bete ahal izan da, baina positibotzat jo behar da duela hilabete batzuk beltzago baitzen panorama. 2011ko lehen hiruhilabetean HABEk burutuko duen plan estrategikoan, HABEren aurrekontuen gai hori sakon hausnartu beharko da. Izan ere, egiturazko arazoa baita HABEko aurrekontuena, bere diru-sarreraren zati esanguratsu bat erakundeak berak eskainitako zerbitzuetatik baitatorkio.

Juan Isasik azaldu du IVAPeko aurrekontuak alde aurretik egin behar izaten direnez, oso zaila dela zenbakiekin asmatzea, gutxi gorabeherako kalkuluekin jokatu behar izaten baitute. Azken urteotan motz geratu dira aurreikuspen horietan; izan ere, erakundeetako zerbitzu-zuzendariek eta udaletako arduradunek dute erabakimena eta ez IVAPekoek.

Aurtengo ikasturteko matrikulazioari begira, Auzmendi andreak datuok eman ditu aditzera, 2010eko urriaren bukaerako datuak eskutan:

Euskaltegiak	2009	2010
Pribatuak	22.274	21.223
Publikoak	8.994	8.330

Datuok beheranzko joera erakusten dute; erne egon beharko dugu datozen urteetan beheranzko joera horri eusten dioten.

Udal euskaltegietako irakasleen ordezkariak, Arantza eta Josuk, berretsi egin dituzte datu horiek. Horiek horrela, Arantza Ezeizak adierazi du ikasleria ere aldatu egin dela, orain euskara ikasteko modulu txikiagoak nahi dituztela, asteen bizpahiru klaserekin. Hondarribian, esaterako, udalaren diru-laguntzari esker, modulu txikiagoko taldeak hartu dituzte eta dezenteko arrakasta izan dute. Horrela, merkatari eta gurasoentzako taldeak asko igo direla.

Auzmendi andreak adierazi du euskaltegi pribatuek ere halatsu adierazi diotela; orain dela 20 urteko eskemarekin ari dela funtzionatzen helduen euskalduntze-alfabetatzea, eta egokitu beharra dagoela gaur egungo errealitatera; esaterako, ikasturtea urrian hastea ez da datarik egokiena, Bolonia ezartzearekin bat ikasturtea irailaren hasieran hasten baita. Orduan, hori ere aztertu beharko da: moduluak, ikasteko sistema berriak (autoikaskuntza...) eta abarrekin batera.

6. 2011rako lan-ildoak

Aurreko urtearen bidetik joko dutela 2011ko lan-ildo nagusiek azaldu du Iñaki Uribek; arloz arlo azaldu ere. Nobedadeen artean, HABEk antolatuko du Moodle moot Euskadi-2011, hezkuntza-xedez atari hau darabiltenei begira. Orobat, Uribe jaunak adierazi du berak euskaltegiekiko harremanak sendotu nahiko lituzkeela, HABE zerbait hurbileko senti dezaten. Hurrengo bileran izango dugu patxada handiagoz hitz egiteko parada, datu gehiago eskuan (besteak beste, aurrekontuak ere onartuak izango direnez ordurako).

Bestalde, Mikel Olaziregi HABEko Kudeaketako zerbitzuburuak egin duen plan berri baten berri eman du Uribe jaunak. Plan horretan jasoko dira, hilez hil, ze aurreikuspen zeuden batetik, eta bestetik horietatik ze exekutatu den; hartara, ekitaldi bukaeran estu eta larri ibili beharrean, aurretik neurriak hartzeko egokiera eskainiko du plan horrek.

Lurdes Auzmendik aipatu du HABEek beharrezkoa duela plan estrategikoa egitea; izan ere, lehenago aipatutako aurrekontuen aferak eta, bestalde, kontuan harturik urte dezente pasatu direla holakorik egiteke komenigarritzat jo du plan horri ekitea. Urtarrilean ekingo zaio, eta bertan hartuko dute parte HABEko arduradun eta teknikari guztiek, eta euskaltegi eta euskal munduko jendeak. Planaren xedea jakinekkoa da: nondik gatozen eta nora joan nahi dugun aztertzea. Aste Santu aldera bukatzea aurreikusten da, eta orduan planaren aurkezpena egingo zaio batzorde honi, Kudeaketa Planarekin batera; Bitariko Batzordeari ere aurkeztuko zaio plan estrategiko hori.

2011ko asmoen baitan, Auzmendi andreak esan du jendeak denbora gutxiago duela euskara ikasteari eskaintzeko; hortaz, teknologia berriak erabili beharko ditugula ikasle-tipologia berriei egokitzeko. Boga autoikaskuntzako metodoa tutorizatu litekeela. Lan horri ekiteko, aurrekontua egongo litzateke HPSko aurrekontuen VI. Kapitulua baliatuz. *Boga* programa astindu baten premian dago, koipe pixka bat behar du eta eduki gehiago sortu. Kontua izango litzateke oinarri-oinarrizko moduluak garatzea, 60-80 ordukoak, xede-talde jakinei bideratuak: merkatariak, igeltseroak, zaharren zaintzaileak... Interesgarria litzateke on line-ko metodo bat egitea, Boga moduko bat, orokorra, eta baita xede-berezietakoak ere.

Argitalpenei dagokienez, Auzmendi andreak aipatu du boladan dagoela gai honen gaineko eztabaida: papera bai ala ez, Interneten bakarrik argitaratu, bi euskarrietan egin, etab. HABEren kasuan plan estrategikoan erabaki beharko da auzi hori.

Esther Isasak gai hori hizpide hartuta, esan du HABE aldizkariak 6 hilabetez jarraituko duela hileroko paperean argitaratzen; Interneten ere argitaratzen da aldizkaria. Hortik aurrera, ez daki jarraipenik izango duen paperean. HABE aldizkariak 2.500 bat harpide ditu, eta horietako 1.800 ordaintzen dutenak. Harpidetza lotuta dago nolabait euskaltegiko matrikularekin.

Lurdes Auzmendik mahairatu du euskaltegien pertzepzioa dela materialgintza bazterturik daukala HABEki; kontu hori ere patxadaz aztertu beharko da plan estrategikoan.

Arantxa Ezeizak ere kezka azaldu du materialen inguruan. Askotan ikasleek ez dutela aurrera egiten material faltagatik; izan ere, egoera prekarioa baita. Testu-liburuak falta dira, Hezkuntzan dituztenak bezalakoak. Ez da erraz ulertzen zergatik ez dauden helduen euskalduntzerako argitaratuta; agian, materialgintzaz ikuspegi *modernista* bat aitzakiatzat eduki izana izan liteke horren arrazoia. Oinarrizkoenaren faltan daude euskaltegietan, ikasle asko dago material horren zain. Ikasketa-porrotaren arrazoi garrantzitsuenetakoa da material egokirik eta behar beste ez izatea, Ezeiza irakaslearen ustez.

Horren harira, Juan Isasik gogora ekarri du ingelesaren ikas-irakaskuntzan urtero aldatzen dituztela testu-liburuak. Andres Iñigok adierazi du hizkuntza-eskoletan ere ez dela testu-libururik euskaraz.

Auzmendi sailburuordeak aditzera eman du kurrikulua ere burutze bidean dagoela. Ikasmaterialez esan diren gauzak entzunda, bistan da asko daukagula oraindik egiteko.

Estibaliz Alkorta aditzera eman du Eudel eta HABErekin hitzarmena sinatu duela Gipuzkoako Foru Aldundiak, ahozkotasuna sustatzeko. MINTZOLA da proiektuaren izena eta espero da hortik ere ahozko gaitasuna lantzeko material interesgarria sortu eta erabilgarri izatea.

7. Norberak lekarkeena

Lurdes Auzmendik gogorarazi du plan estrategikoa egin, kanpoko enpresa batek egin eta eramango duela gidaritza. Oraindik erabakitzeke dago zein enpresak egingo duen.

Juan Isasik gomendatu duenez, garrantzitsuena da barruko hausnarketa estrategikoa. IVAPen plan estrategiko bi egin dituzte. Lehendabizikoan, kanpoko enpresa baten esku utzi, eta ez zen hain ondo atera; aitzitik, bigarreanean IVAPekoek gehiago inplikatu ziren eta atarramentu hobea atera zioten; inportanteena aztergai den erakundeko partaideen hausnarketa estrategikoa baita.

Horrenbestez, eman zaio amaiera bilerari.